

Lur sakonez hazbete batzuk gorago...

Gauzen balioa,
gauzen aurrean gelditzen garenean,
gela bakarti batean,
non pasatu dugun bizitza osoa
amestuz beste norbait ginela.
Zein da, orduan, eta benetan,
gauzen balioa
horrelako kinka larri batean
gure bizitzaren amaiera alderantz,
geuk bakarrik zentzua ulertzen diegun
objektuei begira gaudela,
gu bezain baliogabeak diren gauzen aurrean,
inorako batean, galduta egotearen
sentsazioan gezurrezko patxadaz
etor daitekeenari galdezka,
baina, aldi berean, indiferentziaz?